

## SANTA KOLOMARAINO DOAN IBILBIDE GIDATUA

Iraupena: 1h 30' inguru

Zailtasuna: erraza



Ingurumen Aretoko hezitzailek batek gidatutako ibilbidea da, adin guztietara moldatua dagoena. Bolueko hezegunetik hasten da. Bertan, udalerriko inguru natural garrantzitsuenetariko baten alderdi aipagarrienak aztertuko ditugu. Ondoren, Martiartuko dorretxe zaharrerako bidean dagoen Santa Koloma basilizarantz abiatuko gara.

Ibilbidean zehar, Bolueko hezegunearekin eta haranarekin erlazionatutako ingurumen aspektuak aztertzeaz gain, haranarekin eta bertako biztanleekin erlazionatutako aspektu historiko eta sozialak ere ikusiko ditugu, adibidez, inguruko artitektura tradizionala, errotak, edo bando gerrak.

Santa Koloma basilizaren itxura XVII. mendean egindako berritze baten ondorioa da. Bertara heldu ostean hasiera puntura bueltatuko gara.

---

Gomendioak: ekarri maskara, ura eta oinetako erosoak.

\* Oharra: ibildea egingo den egunean beharrezkoa izango da inskripzioa egitean emango den frogagiria aurkeztea.